


UZTARRIA

GUKA

KANTUJIRA

**KANTATZEN
DUEN
HERRIA...**





Miele

20 URTERAKO
DISEINATUTAKO
ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Barnekoak lortzeko

**MILAR
LARRAMENDI**
Etxetresna elektrikoak

Jakile Urkijo Hiribidea, 16
20720 Azkoitia - Gipuzkoa
943 851 897


**Cooking
& Chef**
KOKATZEN DUTU GUTIA



Uda honetan, frexko eta dotore!


KIMUBAT
— GARDEN —



ANIMALIEN PRODUKTUEN TXOKOA | GARBIKETA ETA ILE-APAINKETA ZERBITZUA

ESKATU HITZORDUA | Urrestilla bidea z/g · Azpeitia | 943 15 00 85 | garden@kimubat.eus



UZTARRIA 263

2023-ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
NEREA URANGA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Korapiloa Nerea Uranga,
<i>Zainduko gaituen hori.</i> | 34 | Erretratua Mikel Alberdi,
<i>irakasle ohia.</i> |
| 6 | Zu zeu Aiora Ibar, errugbiko
jokalaria. | 38 | Plazan Bazan |
| 8 | Nire leihotik Alaitz Ruiz, <i>Bihotza.</i> | 40 | Iritzia Ione Gurrutxaga,
<i>Denbora-pasa.</i> |
| 10 | Iritziak Luis Gurrutxaga,
<i>Rafael Rezabal Aizpuru;</i>
<i>Txetxu Urbietta, Aitzakia maitzakia.</i> | 41 | Guka gara! Amaia San Vicente,
<i>Egin dezagun Guka!</i> |
| 12 | Erreportajea Kantatzen duten
herritarrak. | 42 | Elkarriaketa Joxean Araneta,
<i>Lagun Artea eskuderiakoa.</i> |
| 20 | Erreportajea Adinekoen zaintzako
langileak. | 46 | Iritziak Miel A. Elustondo,
<i>Zoratzekoa; Sara Amenabar,</i>
<i>Konparaketak.</i> |
| 24 | Klik! Ruben Montori argazkilaria. | 47 | Lehiaketa |
| 32 | Iritzia Imanol Amiano,
<i>Itzalpeko lehendakariaren itzala.</i> | | |

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Maialen Etxaniz
Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Angel Sarasua
Zenbaki honetako
kolaboratzaileak:
Unax Larrañaga
Elena Margüello

Alaitz Ruiz
Luis Gurrutxaga
Txetxu Urbietta
Olatz Alkorta
Imanol Amiano
Ione Gurrutxaga
Miel A. Elustondo
Sara Amenabar

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Babesleak:





ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EGUZKI
beldrenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia, 67 943-60 34 47 **AZKOITIA**
Urbiate 9 bis 943-15 00 23 **AZPEITIA**

IRENE ALTUNA
JONADONDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.ialmademake.com



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 **AZPEITIA**
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: **688 69 29 51**

KIRURI



JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

Luba
ehelbuleritza

Analatzailea
liburak
lekuak
sindikatuak

Gestioi lanak
Finan administrazioa
Gestio lanabiltzarria

Tlf.: 943-157 329 Faxa: 943-157 379
Superan sateak: 49-51, 100-101, 102-103



**JARRI HEMEN
ZURE
IRAGARKIA**

CITROËN **Aiortza Autoak**
Behar duzun konfiantzazko talerari!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



EuroZeller EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA

adi **ARTE ETA
DISENU
ESKOLA
ELKARTEA**

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Talla 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 20 08
www.adiarteeta@gmail.com
Matrikula urte osoan zabalik

IKA **Instalakuntza Elektrikoak**
argi lanak s.l.

Urko: 618 26 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ika@ikalanak@gmail.com www.ikalanak.com
20730 **AZPEITIA**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 **AZPEITIA** - Urrut.: 943 81 57 81

Zainduko gaituen hori



NERA URANGA

Gutxietsiak, ikusezinak, lan zatarra egiten dutenak... Era horretan sentitu izan dira urte askoan adinekoak zaintzen lanean jarduten dutenak. "Zenbat aldiz entzun behar izan dugun *limpia culos*-ak garela. Zorionez, gaur egun, jendeak beste era bateko mentalitatea du", azaldu du Laia Juezek, lau hamarkadaz etxez etxeko laguntza zerbitzuko langilea denak. Zatar-ipurdia izan behar du pertsonak beste langile batzuentatik era horretara jarduteko. Juezek hori kontatu orduko, honako hau etorri zitzaidan burura: "Horrela jardundako zenbat aurkitu ote dira ipurdi-bistan, beren atzea garbitzeko kapazitaterik ez, eta beste bateren baten laguntzaren beharrean. Batere garbitu gabe uztea merezi".

Bizitzako etapa guztietan behar dugu guztiok, gehiago ala gutxiago, zainduko gaituen nor edo nor izatea inguruan, izan gurasoak, tutoreak, anai-arrebak, lagunak... edota zaintzaren arloan lan egiten dutenak. Bizimoduak aldatu ditugun eran, zerbitzuak ere egokitzen ari dira gizartean sortzen ari diren behar berrietara; gu haurrak ginenean, etxean beti izaten zen bateren bat edota auzoan elkar zaintzeko joera zegoen. Egun, baina, askotan etxepeko bizilagunekin "egun on" eta "aio", beste harremanik ez dugu, eta etxea ordu askotan hutsik egoten da. Ondorioz, laguntza beharrean gaudenean, gure ahalmenak gastatzen doazenean, nora jo?

Zaintzara bideratutako zerbitzuak gero eta gehiago dira, eta gizartearen etorkizun zaharkitua kontuan hartuta, gehiago beharko dira. Zerbitzu onak izateko inbertsioak egin beharko dira, bai azpiegituretan, baina baita lanean ari direnen baldintzetan ere, erabiltzaileen kalitatezko zaintza bermatzeko. Zaintzaileak ere zaindu egin behar dira.

Adinekoen zaintzan lanean ari diren guztien izenean Juezek, Mailu Etxeberriak, Maryuri Ninoskak eta Eider Iruretak botako dute aurtengo saninazioetako txupinazoa. Harro daude laurak egiten duten lanaz, "lan gogorra" izan arren, "polita" dela diote. Bizitzak berak bezala, "une onak eta tristeak" izaten dituztela, baina zaintza lana gustukoa dutela. Festei hasiera gustura emango diote, merezi dutela uste dutelako.

Lau horiek herriko hainbeste pertsona zaintzen dituzten bezala, festetan ere zaindu dezagun ingurukoa ondo pasatuz eta gozatuz! ■■■

**BIZITZAKO ETAPA
GUZTIETAN BEHAR
DUGU GUZTIOK
ZAINDUKO GAITUEN
NOR EDO NOR**

Aiora Ibar: "Taldeko giroa oso garrantzisa da niretzat"

TESTUA: **UNAX LARRAÑAGA**

ARGAZKIA: **OLATZ AGUADO**

Nahiz eta errugbia Azpeitian kirol ezaguna ez izan, 18 urtez azpikoen Euskal Selektzioarekin brontzezko domina eskuratu berri du Aiora Ibarrek (Azpeitia, 2006) Valentzian. Lan handia egin beharko duela aitortu duen arren, datorren urtean Ohorezko Mailan jokatzeko du helburu azpeitiar gazteak.

Noiz eta nolatan hasi zinen errugbian?

DBHko 3. mailan nengoela hasi nintzen, duela hiru urte, eta kasualitatez izan zela esango nuke.

Soinketan errugbiaren oinarriak lantzen zituen jolas batean ibili ginen, eta asko gustatu zitzaidan. Etxekoei esan nien gustatu egin zitzaidalako, eta inguruan dauden errugbi taldeak begiratzen hasi ginen. Hala hasi nintzen Eibarko ERT taldean jokatzeko.

Ba al dago Azpeitian errugbiarekiko zaletasunik?

Azpeitian eta inguruan ez dago errugbian aritzeko zaletasunik. Hasi nintzenean asko aztertu behar izan nuen, niretzat ez zelako batere ezaguna kirol hori. Ez nuen gertuko zerbaite bezala hartzen, inguruan ez baitut errugbian ibiltzen den inor. Zerotik hasi nintzen erabat.

Nolako entrenamenduak egiten dituzue?

Momentu honetan Euskal Ligan ari naiz jokatzeko, baina Ohorezko Mailako jokalariekin entrenatzen dut, eta exigentzia maila handia antzeman dut maila horretan. Gainera, Ohorezko Mailako jokalariekin entrenatzen dudanez, neure buruari gehiago eskatzea diot orain.

Askotan errugbia biolentziarekin eta kolpeekin soilik lotzen da. Nola ikusten duzu gaia?

Kanpotik begiratuta, normala da horrela ikustea, partidetan kolpe ugari egoten baitira. Neuk ere gauza bera pentsatzen nuen lehen; kirol basatia zela eta min handia hartuko nuela. Baina jokatzeko hasi nintzenean ikusi nuen kirol horren atzean zer-nolako prestaketa dagoen. Ez da kolpeak ematea soilik, teknika ugari daude, eta, nola ez, kolpeak saihesten ere ikasi egin behar da.

Euskal Selektzioarekin txapelketa bat jokatzeko izan zara Valentzian. Nolako izan da esperientzia?

Euskadiko Selektzioarekin jokatu dudako hirugarren urtea izan da, eta zorte oneko sentitzen naiz. Klubaz kanpoko jendearekin entrenatzea eta haiengandik ikastea oso aberasgarria dela iruditzen zait; horri probetxua ateratzen saiatzen naiz beti. Gainera, poz ematen dit dakidana eta entrenatu dudana erakusteko aukera izateak.

Maila desberdintasun handia sumatu al duzu zu eta taldekideen artean?

Aurten bai, 18 urtez azpikoen mailan ni baino zaharragoak diren jokalariekin aritu behar izan dudalako. Gainera, taldekide batzuk Espainiako Selektzioarekin jokatuak ziren, eta haiekin konparatzen hasten zarenean, besteek zuek baino gehiago dakitela ikusten duzu. Hori ere positiboa dela iruditzen zait, ordea, beti egongo baitira desberdintasunak jokalarion artean. Ahal duzun guztia emanda, taldekide horiekin jokatzeko aukerari probetxua ateratzen badiozu, hobetzea lortzen duzu.

Zer du errugbiak lotuta mantentzen zaituena?

Taldeko giroa oso garrantzitsua da niretzat. Gainera, lagun asko egin ditut errugbiaren bitartez. Kirolari zaharragoen laguntza handia jaso dut, haiei ere komeni baitzaie gazteagoek ikastea eta taldeak aurrera egin ahal izatea. Emakumeen taldeak duela gutxira arte ez du presentzia handirik izan, eta jokalariei beterranoek ere nahi dute gazteok errugbian jarraitzea. Gainera, nire egoera ikusita, Eibartik urrutiko bizi naizela ikusita, beti egon dira laguntzeko prest.

Non ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Hurrengo denboraldiaren hasieran 17 urte beteko ditut. Beraz, nire helburu nagusia Ohorezko Mailan jokatzeko da. Badakit horretarako lan handia egin beharko dudala, bai fisikoki, baita teknika aldetik ere. Maila askoz altuagoan jokatu beharko nuke, baina pare bat urte daramatzat Ohorezko Mailako taldearekin entrenatzen, eta badakit maila ona erakusteko gai izango naizela. Horrez gain, eta zorte asko izanez gero, bikaina litzateke Espainiako Selektzioarekin jokatzeko ere. ■



Bihotza



ARGAZKIA ETA TESTUA: **ALAITZ RUIZ**

Lau omen dira elementuak, eta elementu horiek guztiak omen gara gu ere. Ura gara, lurra gara, airea, baita sua ere. Lau horiei, bosgarren bat gehitzen diogu batzuek: bihotza.

Gehiago edo gutxiago, denek dute tokia gure barrenean, baita zeresana ere.

Baina zer izango lirateke lau elementu horiek bihotzik gabe? Arimarik gabe? Nola jakingo dugu gudan zer zeresan duten, ez bagara gure barruak askatu eta bertan dagoenari begiratzeko gai? Ez bagara sentitzeko gai?

Badirudi, batzuetan, egunerokotasunaren zurrumbiloan murgilduta, ahaztu egiten zaigula gure gorputzari eta bihotzari entzutea, lau elementu horiek gure barruan duten zeresana aintzat hartzea. Geure buruari "nor naiz?" galdetzea.

Eta zuk? Galdetu al diozu aspaldian nor zaren zeure buruari? ■■■







Rafael Rezabal Aizpuru

Ekaingo kobazuloa aurkitu zutela 54 urte igaro direla eta –1969ko ekainaren 8an, hain justu–, aitzakia aproposa iruditu zait koba aurkitu zuen Rafael Rezabalen ahotik gertaera jasotzea, eta bide batez, haren bizitzaren printza batzuk txertatzea idatzi honetan. Ez dezagun ahaztu, Antxieta arkeologia taldeko Andoni Albizuri *Katxo* zenak eta Rafaelek topatutako kobazuloak eta bertako 70 pinturek –orain dela 13.000-14.000 urtekoak– mundu guztian izan zutela oihartzun zabala, eta 2008an Unescok gizadiaren ondare izendatu zuela aurkikuntza miresgarri hura.

"Igandeetan eta jaiegunetan, mendira irteteko ohitura genian, naturaz gozatzeko eta Antxieta arkeologia taldeko kideak izaki, ba... ea antzinako aztarnarik aurkitzen genuen edo. Gaiaz

jakin-min handia nian, liburuak leitzen nitian. A, Aita Barandiaranek asko lagundu ziguan. Hartu motoa eta sarri joaten gintuan Ataunera. Garai haietan, gure ametsa zuan giza kaskezurrak topatzea. Badakik zer sona izan zuen –esaterako– Urtiagako kaskezurrak bilatu ondoren? Gu gazezur bila, eta pinturak topatu!", azaldu du hunkituta. "Ikerketetarako oso baliabide gutxi genian. Tailerretik irten, denborarik ez, eta denbora asko behar. Jaietan bakarrik, zortzi, hamalau... ordu. Motoan joan-etorriak, soka xahar batekin eta... Hoixe, potruiek zea baiño haundiyoeuk". Eta zer arrazoik eraman zituen Ekainera? "Errezil inguruetan Haitzorrotz, Amalda, Granada-Erreka, Endoia, Lastur, Izarraitz... Horiek zituan gure bisitetako guneak. Eta Ekain alde hori..., ba geure artean, '...jo, leku

honek ezaugarri onak dizkik'. Paraje ederra, bertan ura, hau derrigor aztertu behar... Sumatu genuen zulo txoaz galdetu baserri gertukoenean, eta 'bai, untxiak-eta sartzen dituk'. Igande hartan, Katxo eta biok bakarrik zulo txikia pixka bat egokitu genuen sartzeko, eta satorren gisara aurrera egin. 'Hi, haize korrentea zagok hemen!'. Eta biok aurrera... Pintura bat paretan! Eta biok deliberatzen zaldia zen ala ez... Bukatu zuan tartetxo hura, eta ni zirrikitu batean sartu eta... aiba! Hura dek panela, margoak nabarmen zirela! A ze makakorroa bota nuen. Andonik pentsatu zian min hartu nuela. 'Hi inori etzegoagu esango, e'". Eta irrifarrez jarraitzen du: "Ez, zea. Azpeitira etorri, lau txikito hartu eta... Ze lau txikito? Lehenengo txikitoan aurkitutakoa kontatzen hasi. Hi,

HAUXE BAI JENEROA!



HAN ETA HEMEN



TXETXU URBIETA

Aitzakia maitzakia

Santu azpizapoa gurtu ondoren (orain ere zapo eta traidore hitzak elkarrekin), zaharrak berri. Berririk ez izatea hobe, berria bada gehienetan txarra delako: "zer moduz", eta erantzuna: "txarra kenduta ondo"; "aparkatzea ezinezkoa da"; "bertakoon bizi baldintza asko okertzen dira udan" ... Mende erdi Lur planetan, eta ohituren animalia, gizakia alegia, betibetiko kontuekin eta esapideekin. Ohituraz jositako animaliak ala aitzakiaz eraikitako animaliak, zer ote gara? Kontua etengabe kexatzea da, arazoa besteez konpondu diezadaten.

Interes ezkutuko espekulatzailerik gaiztoak albo batera utzita, logikoa deritzot gauza ona guztioi gustatzen zaigula pentsatzea. Udan, batez ere udan, hondartza, kosta, terraza, helatua... denok, edo ia denok, ditugu desio. Eta, irakurle lagun, denok gustuko dugun lekuan aldapa, malda, gero eta pikoagoa. Eta horregatik udako kexa errepikakorrek gero eta ulergaitzagoak egiten zaizkit. Errespetua eskatu behar, baina ezinezkorik ez. Bakea nahi duenak, aparkatzeko arazorik nahi ez duenak, jakin badaki edo jakin behar luke: urrundu kostatik. Abuztuko edozein arratsaldetan xapoon herria zure zain daukazu. Oso-osorik dena zuretzat. Santu azpizapoa ere eskertuko du zure bisita. ■■■

Barandiarani deitu eta hasieran ez ziguan sinetsi. Normala: ba al dakik zenbat dei jasotzen zituen, zenbat kontu aurkikuntzez, gero ezerezean gelditzen zirenak? Eta beste kontutxo bat: hainbat enpresari dirudunek –eta ez hain urrutikoek– ikusi zitean kobazuloa esplotatuz negozioa egiteko aukera. Bai, bai... afari bat edo bestera gonbidatuak izan gintuan. Gure ikuspuntua eta nahia, baina, guztiz aurkakoak zituan: mundu guztiari aukera ematea aurkikuntza miresgarri hartaz gozatzeko. Hura herriarena zuan", dio irmoki. "Aranzadi egin zuan kargu, eta zorionez, gure nahia hala konplitu zuan".

Aurkikuntzaz eta arkeologiaz aparte, bere bizitzako pasarteaz aritu zait. Errebalean jaioa, haren aita Uruguain sortu zen: "Hori guztik zekitek". Tamalez,

Gernikako bonbardaketan galdu zuen aitak besoa. Bere "lagunik onena", berriz, musika. Arteetan bat aukeratu behar, eta musika! "Bizitzie ematen zeak", esan dit sineste sendoz. Nietzsche pentsalariaren hitzak gogorarazi dizkiot: "Musikarik gabe, bizitza errorea izango litzateke". Eta harrituta utzi nau pentsalari alemaniarraz zenbat dakien ikusirik. Nola bere lagun Katxok erakutsi zion txistua jotzen –"baita hire arrebak ere"–, eta txistulari taldearekin urtebetez aritu zela Azpeitiko kaleetan. 92 urte eta mutiko bihurria dirudi! Bizitzako eta gizarteko arazo eta gai sakonez aritzea gustuko du, eta umorea oso berea du. "Rafa: aspaldi ez haut ikusi?". Eta berak: "Nola ikusiko nauk ba? Txiki-txikiye nauk-eta?".

Rafael Rezabal Aizpuru: jenioa eta figura... ■■■





Kantatzen duten herritarrak

"Kantatzen duen herria, ez da inoiz hilko" dio kantuak. Azpeitian bada, duela hamalau urtetatik, herriari kantuz bizi-bizirik eusten dioen taldea: Kantujira. Kantatzea helduen eta emakumeen kontua dela ondorioztatzen eraman dezake taldearen egiturak, baina "kantatzeko eta taldean egoteko gogo" duen orok du lekua bertan. Probatzen dutenek "errepikatu" egiten dutela diote.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Uztarria**.



Aldizkari hau irakurleen eskuetara iristerako, beheak eta goiak bat egin ez badute behintzat, Santio egunez hamabosgarren aldiz kalera kantura irtena izango da Azpeitiko Kantujira, Hazparneko lagunekin batera. Taldearen sorburuarekin bada pare bat urteko desadostasun bat. Gaztetxeko kideekin batera irten zen kalera lehen aldiz Kantujira, Baigerak eta Gaztetxeak saninazioetako txupinazoa elkarrekin botatzeko gonbita jaso zuten urte berean, hain zuzen ere. "Udalak erabaki zuen saninazioetako txupinazoa Baigerako jubilatutak eta Gaztetxeko kide batek botatzea. Elkarrekin txupinazoa bota eta kito gutxitxo zela, eta zer gehiago egin zezaketeen galdezka hasi ziren. Maria Jesus-eta [Arregi] zebiltzan saltsan, eta berari otu zitzaion kantujiran irtetearen ideia. Ezagutzen gintuen gure etxekoak eta gugana etorri zen proposamenarekin, baita beste batzuegana ere. Eta horrelaxe hasi ginen, talde txiki bat; dozena bat lagun ginen hasieran. Gaztetxeko kide batzuk ere etorri ziren, eta bi-hiru urtetan jarraitu zuten etortzen. Oraindik ere, Santio egunean agertzen dira batzuk, baina entseguetara-eta ez dira etortzen ja". Horrela azaldu ditu hastapenak Maite Garmendiak. Kontua da, ordea, Baigeraren bueltatik sortutako taldeak berak 2011n kokatzen duela lehen aldi hura, baina bi urte lehenago, 2009an, bota zuten txupinazoa elkarrekin herriko gazteen eta jubilatuen ordezkariak.

2010ean, Santio egunez, kantuan 150 lagun inguruk irten zuten.



Kantujirakoen entseguko irudiak; eta 2018ko saninazioetan, kalean kantuan.

Hamalau urte joan dira, horrenbestez, Azpeitiko Kantujiraren lehen aldi hartatik. Une eta gertaera jakin batean abiapuntua izan zuen egitasmoa hazten joan da. 2009ko hartaz geroztik, pandemiak ebatsitako bi urteetan salbu, hutsik egin gabe bete dituzte kaleak euskal kantuz Santio egunez, eta beste egun eta une askotan ere bai.

Handitzen, handitzen...

"Hasieran gutxi ginen, justukoak, baina heltzeko moduko taldea zen", dio Maria Jesus Arregik, taldearen sustatzaileak. Gitarra bakarrarekin irteten hasi ziren, Amaia Garmendiarenarekin; aurrerago, taldera kantura batu zen Arantxa Orbea ere – Garmendiaren ikaslea– gitarra jotzen hasi zen. Pixkanaka, Santio egunekoaz gain, kantaldi gehiago egiten hasi ziren han eta hemen –Eguneko Zentroan eta San Martin egoitzan, esaterako–.

"Eta halako batean, azaldu zitzaigun gizon luze eta guapo bat, esku soinurik gabe...", bota du Maite Garmendiak hastapenetako kontakizunaren barruan. "2012an hasi nintzen ni", sartu da kontakizunean Joxe Mari Garmendia, eta barrez hasi dira Baigerako laugarren solairuko entsegu lekuko mahaiaren bueltan elkartutako kide guztiak, Maite berataz ari zela derrepentean ulertu duelako Joxe Marik. Lanetik erretiroa hartu zuenean hasi zen azken hori Kantujiran parte hartzen; hasieran, kantuan bakarrik, eta gerora, eskuko soinuarekin. Joxe Mari Garmendiaren akordeoia gehitzea taldearentzat "inflexio puntua" izan zela nabarmendu dute Maite Garmendiak eta Arregik.



"Hasieran pena ematen genuen", bota du, hala ere, Kantujirako soinu jotzaileak, ostiraletan kalera irteten ziren garai haiek gogoan. Gaur egun, ordea, bestelakoak dira kontuak Azpeitiko Kantujiran. Garmendiaren akordeoiaren atzetik, beste kitarra bat –Olatz Arangurenena–, txirula, ahoko soinua eta perkusioa –Joxe Luis Lopetegi *Loperen* eskutik– batu zitzaizkion taldeari. Eta kide kopurua ere asko hazi da. "Taldearen argazki ofiziala atera dugu aurten, eta 42 elkartu ginen", dio Luis Gurrutxagak. "Jendea falta zen, hala ere, gehiago gara", gehitu du Kontxita Martijak; "aspaldi honetan entseguetan 40 bat" elkartzen direla zehaztu du Maite Garmendiak, eta Whatsapp taldean 50 badirela esan du Joxe Mari Garmendiak.

Gaur egun, hamabostean behin "barruko entsegua" esaten diotena egiten du taldeak Baigerako lokalean, eta hamabostean behin "gutxi gorabehera", ostegunetan, kalera irteten dira kantura. Horrez gain, Sanjuandegiko, Nuarbeko eta Elizkaleko festetan aritzen dira, Loiolan Sagardo Eguna egin izan dutenetan ere kantatu dute han; eta aurten, lehen aldiz, Beizamako San Pedro jaietan parte hartu dute. "Aurten bolo asko eduki ditugu", dio Maite Garmendiak. Beizaman, 19:00etan saioa hasi eta 23:00 aldera arte jarraitu zuten kantu festarekin. "Ene, zer izan zen ba hura... Berriz joan beharko gara", adierazi du nahia Martijak. Abuztuan bertan itzultzekoak dira, hango San Lorentzo ermitako festara.

Emazteen fabore

Baigera jubilatuen elkartetik sortutako egitasmoa izan arren, Kantujira Baigeratik aparteko kontua dela azaldu dute

**GAZTETXKO KIDEEKIN
BATERA IRTEN ZEN
KALERA LEHEN ALDIZ
AZPEITIKO KANTUJIRA,
2009KO FESTETAN**

**BAIGERATIK
SORTUTAKOA IZAN
ARREN, ELKARTETIK
APARTEKO KONTUA DA
KANTUJIRA**



Ezkerrean, Kantujirakoak Ostegun
Gizeneko kalejirarako pronto, 2020an.

Eskubian, aurtengo sanpedroetan,
Beizaman.

TALDEA HAZTEN JOAN DEN NEURRIAN HAZTEN JOAN DA ERREPERTORIOA ERE: 300DIK GORA KANTU

EUSKAL KANTUGINTZA JORRATZEN DUTE IA ERABAT, BAINA BADITUZTE ERDARAZKO KUTUNAK ERE

taldekideek. Kideen batez besteko adina Baigerako bazkide izan daitezkeen adinetik gertuago dagoela ez dute ezkututzen, baina nabarmendu dute "gazteak" ere batu zaizkiela azkenaldian. Izan ere, Kantujiran parte hartzeko "baldintzarik ez" dute jartzen, ez adinari dagokionez, ez bestela. "Denetik dago, e. Ez da exijitzen ahots ona edukitzea. Kantatzeko eta taldean egoteko gogoia, besterik ez", laburbildu du Orbeak taldearen izpiritua. Taldeko giro onari garrantzia ematen diotela agerikoa da Uztarriarekin elkartutako kideak ikusita eta entzunda. "Bai, bai, meriendak-eta egiten ditugu...", hasi da Gurrutxaga umoretsu, eta segida eman dio Orbeak: "Gu ez gara alferrik galtzen, ez".

Talde barruko txantxak eta kodeak agerian gelditu dira taldekideen generoaz hitz egiterakoan ere. Emakumeak nagusi dira, oso nagusi, Azpeitiko Kantujiran. Botila erdi hutsik ikusten dute batzuek, gizon gehiago zergatik ez den animatzen ez dakitela. "Azkena, Elizkaleko adibidea: 26 emakume eta bost gizonetako. Saiatu naiz, eta pare bat edo hiru ekarri ditut nik, baina...", dio Gurrutxagak, etsipen puntu batekin. Orbea botila erdi beteta ikusten dutenen taldean dago. "Gizonezkoak badaude aspaldi honetan, ari dira animatzen", dio, eta umoretsu, taldeko gizonak "zer ondo zainduta" dauden aipatu du. "Hori ere esan beharra dago", arrazoi eman dio Gurrutxagak barre artean; eta barreak areagotu dira Joxe Mari Garmendiak Orbeak esandakoari "beno..." batekin erantzun dionean.

Garmendiaren esanetan, hori bai, "jende gehienak behin etorritz gero errepikatu egiten du". Kide askorentzat Kantujira –eta entseguak, batik bat– "taldeko terapia" antzeko bat dela ere aipatu dute Maite eta Joxe Mari Garmendiak; "ordu eta erdi edo



bi ordu gustura pasatzen dituzte, kantatzen, eta gustura joaten dira", gaineratu azken horrek.

Kantuz nahi bizi

Taldea hazten joan den neurrian hazten joan da erreperitorioa ere. Horren erakusle nagusia da taldearen lorpen handienetakoa: 300dik gora kantu biltzen dituen "liburuxka" mardula. "Euskal Herriko kantujiretako hainbat liburu ditut, eta horrelakorik ez dago", nabarmendu du Gurrutxagak, liburua egiteko "lan asko" egin zutela gehituz. 2019 bukaeran argitaratu zuten, udalak lagunduta.

Euskal kantugintza jorratzen du ia erabat Azpeitiko Kantujirak, baina liburuan badituzte erdarazko kutunak ere: *De cap tà l'immortèla* okzitanierazkoa, *Aqueres montanhes* Aran haraneko ereserkia, eta gaztelaniazko hainbat klasiko ere bai: *Adiós con el corazón*, *Ojos negros*... Egunko Zentroan, San Martin egoitzan edota Loiolako jesuitetan kantatu izan dituzte batik bat azken horiek.

Aurten lehen aldiz egin dute, "festetara-eta egin ditugun irteera horietarako" kanta ezagunen zerrenda bat, 35 piezarekin. Liburua argitaratu zutenetik ere taldearen kantutegia hazi egin da, eta "berredizio bat" egiteko aukera ez dute baztertzen, kantu berriak gehitzeko. Entseguetan, "batzuetan", taldekideek beren kantu gustukoena eskatzeko aukera izaten dute, eta badaude "hiru edo lau beti kantatu behar" izaten dituztenak: *Pottoka*, *Ez nazazu utzi*, *Xalbadorren heriotzean*... Gozatu egiten dute, horiekin eta gainerakoekin, Kantujirakoek, kantatzen duten herritarrek. ■■■

Agur Azpeitiko ardoei



Ardoaz jakin edo ardo botilak erosi nahi dituzten azpeitiar gehienei, *ardoa* hitza bera bakarrik aipatzearekin, Odriozola Ardoak etorriko zaie gogora. Izan ere, erreferenteak dira Odriozolakoak, ez Azpeitian bakarrik, Urola Erdia bailara osoan baizik.

Aro baten amaierara iritsi dira, ordea, eta hil honen 29an Azpeitiko saltokiaren atea irekitzen dute. "Duela 28 urte zabaldu genuen Azpeitiko denda, garaiko beharrei erantzuteko asmoz. Ia 30 urte igaro dira ordutik, eta garaia asko aldatu dira; aurrez aurreko zerbitzuak indar handia izaten jarraitzen duen arren, egun egoera beste modu batekoa da, kontsumo ohiturak aldatu dira, eta dendan genuen beste berezitasuna –ganaduentzako

pentsua eta baserriko produktuak– gero eta gutxiago saltzen da. Bestalde, gaur egun hiru kilometroren barruan era horretako bi establezimendu izateari ez diote zentzurik bilatzen Odriozola anai-arrebek.

"Pena handiz" itxiko dituzte Azpeitiko dendaren atea uztailearen 29an, eta egun batzuk lorik egin gabe ere igaroko dituztela onartzen dute. Dena den, aldi berean, erabakiarekin oso seguru daude: "Jakin egin behar izaten

**UZTAILAREN 29AN
ITXIKO DITU ATEAK,
BETIRAKO, AZPEITIKO
ODRIOZOLA ARDOAK
SALTOKIAK**

da agur esaten, eta nahiz eta erabakia lehenago hartuta zegoen, hau iruditzen zaigu pausoa emateko unerik egokiena".

Hala, bezero izan diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie Odriozola Ardoak. Bezero guztiak dituzte gogoan, eta denak, bat bera ere ahaztu gabe, eskertu nahi dituzte, "horiek guztiak gabe Azpeitiko saltokia ez baitzen 28 urtez zabalik izango". Horregatik, konfiantza horren jabe izaten jarraitzeko lanean segituko dute Odriozola anai-arrebek, Azkoitiko dendan.

"Herriar gutxiak jakingo dute, baina Odriozola Ardoak enpresaren sorrera Azkoitian izan zen. Gure aitona-amonen tradizioari jarraituz, 1983. urtean ekin zion gure aitak



abenturari, eta Azkoitia izan zen hautatutako herria, nahiz eta askok Azpeitikoa dela pentsatu. Gu, negozioaren hirugarren belaunaldia izanik, haiek hasitako bideari jarraitzen saiatuko gara leku berean", zehaztu dute Odriozola anai-arrebek.

Denda fisikoez gain (Azkoitian eta Zumaian), *online* denda bat ere badute (www.catandovino.com). Ostalaritza guneetarako, elkarte gastronomikoetarako eta etxeetarako zerbitzua ere eskaintzen jarraituko dute, orain arte bezala, Elgoibartik hasi eta Zumaia arteko

eremuan, Errezil bezalako herri txikiak barne hartuta. Horrez gain, janari gourmetaren eskaintza zabala dute dendan, zer esanik ez edariei eta ardoei dagokienez, eta, nola ez, Gabon garaian otarreak eta saskiak egiten jarraituko dutela azaldu dute.

Gaur egungo bezeroa "oso exijentea eta oso zorrotza da, eta horrek gero eta zerbitzu hobea ematera behartzen gaitu", azaldu dute Odriozola Ardoakekoek. Horregatik, etengabe formazio saioetan parte hartzen dute anai-arrebek, besteak beste,

enologian masterra, WineSet diplomak, ardo-dastaketak... egiten dituzte. Aiton-amonek hasitako bideari jarraitzeko ahaleginak egiten dituzte, nahiz eta haien esanetan, batzuetan "ez den erraza familia, lana eta sektoreak eskatzen duen dedikazioa eta lotura uztartzea". Dena den, azaldu dutenez, "etxeko indarrari esker" egiten dute beraiena moduko denda txikiek aurrera.

Pasio eta gogo horrekin jarraituko dute anai-arrebek lanean, 40 urteko ibilbideak bide luzeagoa, amaigabea, izan dezan. ■



od
rio
z
ola

San Juan auzunea, 19
(Axiri eraikina)

943-85 00 59

www.odriozolaardoak.com



Ezkutukoa azalera

Laia Juezek, Mailu Etxeberriak, Maryuri Ninoskak eta Eider Iruretak adinekoak zaintzen egiten dute lana. Sektore horretan aritzen direnen izenean, horiek botako dute San Inazio bezperako txupinazoa udaletxeko balkoitik. Zaintza lanak kalitatezkoak izateko lan egin beharra dagoela aldarrikatu dute laurek. Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga.**

Uztailaren 7an kendu zituzten musukoak. Bai gustura kendu ere. Luzeak eta gogorrak, "oso gogorrak" izan dira COVID-19aren izurriteak eragindako bizipenak eta izandako ondorioak adinekoen zaintzan lan egiten dutenentzat. Gauza bakar bat izan du ona edota nabarmentzekoa: beren lanaren beharra ikusarazteko eta gizarteratzeko balio izan duela. Alegia, adinekoen zaintzan ari direnen lana eta zerbitzuak ezinbestekoak direla ikusi dela.

Laia Juez (Guareña, Espainia, 1958), Mailu Etxeberria (Azpeitia, 1966), Maryuri Ninoska (Nikaragua, 1977) eta Eider Irureta (Azpeitia, 1994). Adin eta belaunaldi desberdinekoak dira laurak, baina denak aritzen dira adinekoak zaintzen. Laurek botako dute aurtengo saninazioetako txupinazoa udaletxeko balkoitik, adinekoen zaintzan jarduten duten "guztien" izenean. Gustura hartu dute udalak egindako proposamena, pozik daude haiek lan egiten duten sektorea kontuan izan dutelako. "Bada ordua guri ere egiten dugun lana aitortzeko", adierazi du Juezek.

Azpeitian zaintza lanetan ari direnen artean aitzindariak dira Juez eta Etxeberria. 1982. urtetik ari da lanean Juez etxetzeko laguntza zerbitzuan; urrian 41 urte egingo ditu. "Gu hasi ginenean, proiektu pilotua zen etxetzeko zerbitzua, hala-hola aritzen ginen, ez genekielako ziur lana nola egin behar genuen. Etxetzeko zerbitzuak emaitza onak zituela ikusi zutenean, ordea, geriatriako ziurtagiria ateratzeko formazioa antolatu zuten zerbitzuan lanean ari ginenontzat", azaldu du etxetzeko langileak.

Etxeberria, berriz, 25 urtez ari da Azpeitiko Bistaeder eguneko zentroan erizain laguntzaile lanean. 1996ko udaberrian ireki zuten lehendabiziko eguneko zentroa herrian, Baigera eraikineko bigarren solairuan. Etxetzeko zerbitzuari ez bezala, eguneko zentroari aurrera egitea kostatu egin zitzaion, eta ixteko zorian ere izan zela azaldu du Etxeberriak. "Proiektu aitzindaria zen, eta lau erabiltzailerekin jarri zuten martxan, laurak emakumeak, baina orduko pentsakeragatik-edo ez zen erabiltzaile gehiago joaten". Gero, ordea, pixkanaka erabiltzaileak gehitzen joan ziren, eta aurrera egin zuen zerbitzuak, gaur arte. Egun, Julian Elorza hiribidean dago eguneko zentroa, eta 40 erabiltzaile ditu.

Eskuineko irudian, ezkerretik eskuinera, Eider Irureta, Maryuri Ninoska, Laia Juez eta Mailu Etxeberria.





Ezkerretik eskuinera, Mailu Etxeberria, Laia Juez, Maryuri Ninoska eta Eider Irureta.



Orain dela 25 urte Udal Gizarte Zerbitzuak adinekoen zaintzan aritzeko formazio ikastaroa antolatu zuen, eta Etxeberriak izena eman zuen, "lanbidea gustatuko" al zitzaion jakin gabe. Ikastaroa bukatu eta Bistaeder eguneko zentroan hasi zen lanean. Ordutik, beste hainbat ikastaro egin dituela dio, eta egiten duen lana "oso gustukoa" duela.

Etxeberria bezala erizain laguntzailea da Irureta ere, baina San Martin egoitzan egiten du lana; "hamar bat urte" dira lan horretan hasi zela. Erizain laguntzaile ikasketak egin zituen, gero laborategiko ikasketak egin ahal izateko. "Praktikak San Martin egoitzan egin nituen, eta ikasten jarraitu nahi nuelako, laborategiko ikasketak egitera joan nintzen. Ohartu nintzen, ordea, laborategikoa baino gogokoagoa nuela egoitzako lana, eta egoitzara itzuli nintzen lanera", azaldu du Iruretak.

Etzeko langile egoiliarra da Ninoska. Azpeitira etorri aurretik, urtebetez Zumaian adineko gizon bat zaintzen egin zuen lan. Hura hil zenean etorri zen Azpeitira, beste adineko baten etxera; lau urte egin zituen haren etxean. Azken hiru hilabeteetan, adineko emakume baten etzeko langile egoiliarra da.

Lan gogorra, baina polita

Emakumeak dira laurak, adinekoen zaintzako sektoreko langileen ispilua. "Lanbide feminizatua da gurea, ikusezina eta gutxietsia izan dena urte askoan", diote laurak. "Pandemian eta ondoren jende asko egoera oso txarrean eta zaurgarrian aurkitu da, eta badirudi gure lanbidea azalera ateratzen hasi dela", uste du Etxeberriak.

Izurritean bizitako egoeragatik, adineko askok okerrera egin dutela diote. Esaterako, hainbat hilabetez eguneko zentroa itxita egon zen, eta "etxean sartuta" egon behar izan zuten adinekoek. Gainera, hango langileak beste herri batzuetako egoitzetara joan ziren lanera. Izurriari aurre egiteko zerbitzuetan hartu zituzten neurriak ere "oso gogorrak" izan zirela diote. "Egun batetik bestera aldatzen zituzten protokoloak, distantziak asko gehitu ziren, sukarrarekin zeudenak isolatu egiten ziren kutsatzeak saihesteko, egoiliarrek ezin zuten atera...", gogoratu du Iruretak.

Ondorio horiek bere lanean gutxien antzeman dituen Ninoska izan da. "Alde horretatik, nik etxean egiten dut lana, eta neurriak ez ziren hainbeste gogortu guretzako. Hori bai, egun zaintzen dudan



emakumea ez da kalera irteten, izurritearen ondoren beldur delako".

Gustukoa dute laurek beren lanbidea, lana gogorra izan arren "polita eta esker onekoa" delako. "Emozio aldetik asko xahutzen du, lan psikologikoa eta fisikoa baita zaintzalearena. Horri aurre egiteko bakoitzak aurkitu behar izaten ditu bere bideak: kirola... Pertsonekin egiten dugu lan, eta eguneko zentroan, behintzat, gertuko harremana dugu, familia handi bat gara. Une dibertigarri asko ere pasatzen ditugu", adierazi du Etxeberriak. Behin medikuak esandakoa ekarri du gogora Juezek: "Esan zidan harrigarria dela horrenbeste urtean etxez etxeko zerbitzuan lan egin eta emozio aldetik horren ondo egotea. Esan nion asko hitz egiten dudala eta horrek barrena lasaitzeko balio izaten didala".

Ninuskaren kasua, "bestelakoa" da haren hitzetan: "Beste hirurek talde lanean jarduten dute, eta beren artean hitz egin dezakete laneko kontuez eta. Nik etxe batean egiten dut lan, eta bakarrik nago, etxe horretako familiaren menpe. Badira oso onak diren familia batzuk, eta beste batzuk, aldiz... Niri, zorionez, lanean aritu naizen etxeetan oso jende ona egokitu zait; lagundu egiten didate eta denbora libre eman ere bai –egunean bi ordu eta asteburua–. Ezin ahaztu, ordea, etxeko langile egoiliar batzuk paperik gabe daudela, ikastaroetara joateko denbora liberrik ez dutela izaten eta beren poltsikotik ordaindu behar izaten dituztela ikastaroak".

Zaintza zerbitzuetako langileen beharra ezinbestekoa da egun, eta gehiago beharko dira etorkizunean, gizartea zahartzen ari delako. "Gero eta behar handiagoa izango da, denok norabide bera daramagulako. Gu zainduko gaituen jendea ere beharko da gerora", azaldu du Juezek. Ninuskak erantsi duenez, etxeko langile egoiliar asko migratzaileak dira, eta haiek lan egiteko modu hori utzi egingo dute askok "paperak" lortzen dituztenean: "Zaintza lanetan jarraituko dute, agian, baina egoitzaren batean, eguneko zentroan...".

Aurrera begira zaintza zerbitzuak hobetzeko lan egin beharko dela garbi du Etxeberriak. "Kalitatezko zahartzaroarekin pentsatu behar dugu, hau da, zahartzaroa nolakoa izatea nahi dugun. Hori lortzeko egin behar dugu lan, bizitzako azken etapa hori kalitatezkoa, lasaia eta gustura bizitzekoa izan dagigun". ■■■

**"EMOZIO ALDETIK
ASKO XAHUTZEN DU,
LAN PSIKOLOGIKOA
ETA FISIKOA DA
ZAINZAILARENA"**

**PANDEMIAK BEREN
LANAREN BEHARRA
IKUSARAZTEKO ETA
GIZARTERATZEKO
BALIO IZAN DU**



Argazkigintza, zaletasun eta pasio

Argazkilaritzarekiko pasioa eta rally munduarekiko zaletasuna uztartzen ditu Ruben Montorik (Azpeitia, 1993). Duela hamar urte hasi zuen abentura, eta gaur egun punta-puntako argazkiak egiten ditu. Milaka argazki ditu jasota, eta horietako askok kirol arloko profesionalen eta gidarien aitortza jaso dute.

Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Ruben Montori**.




EKINEZ EGINA

Betikik izan da rallyen zalea Montori, baina duela hamar urte bere bi zaletasunak uztartu zituen: lasterketetan argazkiak ateratzen hasi zen amaren argazki kamera zaharrarekin. Irudiak hartzearen esperientzia gustatu egin zitzaion, eta hainbat lagunekin hitz egin ostean, argazki kamera berria erosi zuen. Orduan hasi zen azpeitiarraren ibilbidea. Askotariko tutorialak ikusi, ikastaroak jaso eta argazkigintzan aritutako kideekin hitz eginda lortu du gaur egun duen jakintza. "Inbertsioa handia izan da, baina merezi izan du", kontatu du. Gaur egun hainbat kamera eta objektibo ditu, eta milaka argazki gordeta.

ALTXORREN PARE, GORDETA

Digitalean nahiz formatu fisikoan –paperean, plastikoan, metalean...– ditu gordeta azken urteotan ateratako argazkiak, ondo sailkatuta. Horietako asko, gainera, altxorren pare gordetzen ditu, liburuxketan; izan ere, hainbat piloturi lasterketetan ateratako argazkiak gidarien sinadura eta guzti ditu jasota. "Oroitzapenak eta egindako lana gordetzeko modu bat da", esan du.





ABIADURA IZOZTEKO GAITASUNA

Argazkilaritza munduan aritzen direnek badakite abiadura motelean abiadura handiko uneak hartzeak zer-nolako zailtasunak dituen. Argazki

hau horregatik da berezia Montorirentzat.

"1/20ko abiaduran atera nuen argazkia, eta uste dut autoa fokatuta harrapatzea lortu nuela. Horrek egiten du berezia irudia", dio. Era berean,



nabarmentzekoa da autoaren keak utzitako
arrastoak ematen dion konposizio itxura ederra.
Nafarroako Los Arcos zirkuituan ateratako irudia
da.



BERTAKOAK, ETXEAN

Euskal Herritik kanpoko probak ikustera joatea atsegin du Montorik, baina etxetik gertu jokatzekoa diren rallyak ere kuttunak dira azpeitiarrarentzat. Lasterketa horietako bat da Urrakiko Igoera. Argazki honetan Iñaki Alberdi gidaria harrapatu zuen Montorik, atzean Azpeitia ikusten dela. "Herrian guztiok ezagutzen dugun gidaria da Alberdi, eta azpeitiarrontzat berezia den proba da Urrakiko Igoera", adierazi du.



AIREAN GOZO, AUTOA AGURTZEKO

Dani Sordo gidari ospetsuari La Rocako pistan ateratako argazkia da honako hau. Sordok Munduko Txapelketako auto ofizialarekin parte hartu zuen lasterketan. Gasolinadun autoarekin jokatu zuten azken proba izan zen, ondoren ibilgailu hibridoak erabiltzen hasi baitziren. Une berezia izan zen Montorirentzat, Sordoren aitak eman baitzion argazkia leku horretatik ateratzeko baimena.



AUTOAK BAI, PAISIAK ERE BAI
2023ko Gabiriko Rallysprintean ateratako argazkia da hau, eta irudia bera baino gordetzen duen esanahia da garrantzitsua Montorirentzako; izan ere, Lagun Artea eskuderiak antolatu izan du urteetan Gabiriko rallya, baina aurten utzi egingo dute antolaketa. Hori dela eta, egindako "lan mardula" eskertzeko aukeratu du argazkilariak irudi hau bilduma honetarako. "Rallyak, autoez gain, jokatzen diren inguruneagatik ere badira berezi", azpimarratu du Montorik.



LEHERKETAREN UNEAN, KLIK

Montorik ateratako argazki hau hainbat txokotara iritsi eta birala egin zen. Fitoko Nazioarteko Igoeran ateratako argazkia da, Asturiasen. Argazkilari azpeitiarrak motorrak une zehatz batean kanporatzen duen sua harrapatzea lortu zuen, eta aipatu duenez, "oso zaila" izaten da hori. Gaur egun Montorik gehien preziatzen duen irudietako bat da.



LEKU ETA EGUN BEREZIAK

Izarraitz skate parkearen lehen urteurrenean ateratako argazkia da honako hau. Bertan, Sergio Layos bmx riderra ageri da, airean, zerutik jauziko balitz bezala. Montorik adierazi duenez, skate munduan ere badira argazkiak ateratzerako unean kontuan hartu beharreko zera batzuk; abiadura ez ezik, jauziari perspektiba ematea garrantzitsua da. Era berean, argazki honetan Izarraitz mendilerroa harrapatu nahi izan zuen Montorik, baita skate parkean bildutako jendetza ere.



KARNABALAK, GUSTUKO PLAZA

Lasterketena edo kirol ikuskizunena ez ezik, herriko festen zalea ere bada Montori, eta une gogoangarriak irudietan harrapatzearen zalea ere bai. Honako argazki honetan berarentzat eta beste azpeitiar askorentzat berezia den Jai Karnabaleko zezenaren irteera harrapatu zuen. Hark azaldu duenez, hainbatetan parte hartu du Sokamuturra Argazki Lehiaketan, "zorte handirik gabe". Irudiak adierazten duen "zirrara" eta jendearen "emozioak" nabarmendu ditu Montorik. ■■■

Itzalpeko lehendakariaren itzala



IMANOL AMIANO

Gipuzkoan gehien saltzen den egunkarian argitaratutako albiste baten pantaila-argazki bat iritsi zitzaidan Whatsappez, begi handi irekidun emotikono lagunduta: "Xubi izango da Gipuzkoa Basketeko koordinatzaile berria" – itzulpena, nirea, noski–. "Ona *photoshopa*! Kar-kar!", "62 urterekin? *Fake news*", eta antzekoak taldeotan. "Donostian *vox populi* zen", ordea, hirugarren batek. Sugarren modura zabaldutako berria, handik edo hemendik, Iraurgirekin zerikusiren bat dugunon artean; sutu, bat eta bi baino gehiago prentsa bidez albistearen berri izateagatik, horrelakoetara ohituta egon beharko genukeen arren.

Ordezkatza prestatzen zebilen azken denboraldietan Jose Luis, eta jakinekoa zen Ibon Guridi izendatua zuela oinordeko. Apirilean egindako Ohiko Biltzar forma hartu zuen ezohiko batzar hartako eginkizun banaketa onartu zen ibilbide orri gisara, eta, gehiago edo gutxiago, abdikazioa gertu zegoela zirudien. Inork gutxi esperatu zuen, ordea, Iraurgi ibarreko itzalpeko lehendakaria Donostian errege lehorreratzea. Edo Erregearen Esku, bederen.

"Ez didate gauza gehiegirik egiten utziko", edo antzeko zerbait esan zuen emozionatuta, Stephaniek emandako lore sorta eskuetan zuela, urteroko Loiola hoteleko bazkariko postreetan. Izan ere, Ilunben ez du pistarik muntatu beharko; speakerra ere badute, epaileei mikrofonotik "ba al leike" eta antzekorik esaten ez dien arren. Guk zerbeza ferian DJ berria beharko dugu; bazkideen txartel kudeatzailea ere bai; agenteei "lau ireki bat" eta "bost trontzo bat" eskatzeko; infantilentzako entrenatzailea ere topatu egin beharko da. Ez diote gauza gehiegirik egiten utziko. Fitxaketak eta halako huskeriaren bat. Hasteko, Mikel Odriozola. Eta, gutxira, Manex Ansorregi. Jexux ere berarekin emango ote du?

Mailaz jaitsita utziko ditu Xubik Juaristi eta Domusa Teknik. Ez da bere erantzukizuna, noski –harekin

**ORDEZKOTZA
PRESTATZEN ZEBILEN
AZKEN
DENBORALDIETAN
JOSE LUIS**

igo ziren biak ala biak–. Gerta zitekeen eta gertatu zen. Ohitzen hasiak ginen hamabostean behin Emakumeen Challenge edota Urrezko LEB ligetako Estudiantes edo Celta gisako taldeak *villarribako* Elkargunean eta *villabajoko* kiroldegian ikustera. Opari ederra izan da, oparia diren moduan klubean ditugun azkoitiar-azpeitiarrak, horiek ematen baitute Iraurgi Saskibaloiaren benetako maila: hogeita lau talde federatu –bota hamarren bat jokalaria eta pare bat entrenatzaile taldeko– eta zientoka luze bat haur teknifikazioan; gehitu horien inguruan sortutako txapelketei, topaketei, ekitaldiei eta abarrei erantzuteko boluntario andana. Eta, noski, lehen taldeotako babesle nagusien ondotik mugimendu hori guztia hornitzeko dirua ipintzen dutenak.

Itzalpeko lehendakariaren itzala ez du nolanahikoa izango Guridik. Aukera gisara hartu duen moduan Nartzabalgoak, hala hartu beharko luke Ibonek, eta ez genioke gauza *gehi*egi egiten utzi beharko, *asko* seguru egin beharko baitu. ■

**Hondartzaz eta igerilekuaz
gozatzeko**

UDAKO GUKA PRODUKTUAK

Nahi al dituzu?



Informazio guztia: www.uztarria.eus/denda/

"Egiten denak sentipentsatzeko balio behar du, bizitza goraipatzeko"

MIKEL ALBERDI IRAKASLE OHIA

Bidaiak, musika nahiz literatura ditu zaletasun handienak Mikel Alberdik. Irakasle lanetatik erretiroa hartuta, bere ibilbide profesionalaz nahiz gustuko dituen denbora pasei buruz aritu da solasean.

Testua: **Elena Margüello**. Argazkiak: **utzitakoak**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**.

Erretiroa hartuta, gaztetatik saiatu izan den bezala, orain ere hara eta hona dabil Mikel Alberdi (Azpeitia, 1960) azken urteetan. 14-15 urte ingururekin, uda sasoia tailerretan lanean igarotzen zuen, eta bizimodu hura "oso tristea" zela sentitzen zuela dio; ikastea gustatzen zitzaiola aprobeztatuta, horretan hastea pentsatu zuen lanbide "hobe bat" aurkitu ahal izateko. Lanbide guztien artean, bere izaera ezagututa, irakasle izatea iruditu zitzaion aukerarik "onena"; izan ere, denbora libreak eta sormenak ematen dituen gauzak "gustatzen" zaizkio.

Bide horretatik ekin zion bere lehenengo bidaiari: Bartzelona. Antropologia eta Historia Garaikideko ikasketak egin zituen han. "Azpeititik alde egiteko beharra ere sentitzen nuen, herri hau oso itogarria egiten zitzaidalako,

eta oraindik ere, hala egiten zait". Azpeitiarrak kontatzen duenez, garai hartan jaiotako "askok" gizartea eraldatzeko "nahia" zuten, Frankismoaren azken urteak zirelako. Hala, militantzian "gauza asko" egin zituela gogoratzen du: "Biolentzia ez zait asko gustatzen, nahiz eta Bartzelonan atxilotuta egotea tokatu zitzaidan. Ondorioz, sei urtez egon nintzen pasaporterik gabe, eta ondoren diziplina kuartel batera bidali ninduten soldaduska egitera".

Etapa hura itxi ostean, irakaskuntzako oposaketak atera eta klaseak ematen hasi zen Alberdi. Bokazioa "oso erlatiboa" dela uste badu ere, gizarteko gaietan "oso konprometitua" dela azaldu du. Hori dela eta, irakasle modura "inplikaturik" egin du lan, eta lan egiten zuen ikastetxeko zuzendaria ere izan da hainbat urtez: "Gizartean oso garrantzitsua da





Mikel Alberdi

- **Adina:** 62 urte.
- **Ikasketak:** Antropologia eta Historia Garaikidean lizentziatua.
- **Irakaslea izan ez banintz...** bidailaria izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko nuen...** hausnartzea.



hezkuntza, eta horretan progresista izan ala ez izan alde handia dago". Irakaskuntzak lanbide "ona" eman diola sentitzen du irakasle ohiak, eta gainera, jende gaztearekin "harremanetan" egoteko aukera eman dio lanbideak urte mordoak batean; adin horietan "energia baikor asko" egoten dela sentitzen du. Hala ere, lanak "lotura handia" eragin diolakoan dago.

"Ez dut ulertzen bizitza konpromisorik gabe", esan du Alberdik. Era horretan jardun du irakaskuntzan eta militantzian, besteak beste. Orain, bere "arreta" hirugarren adinekoei lotutako gaietan dagoela kontatzen du: "Hirugarren adinekoentzat bidaia alternatiboak sustatzen ari gara Baigera elkartarekin eta Azpeitiko Halcon Bidaiaekin batera, eta koordinatzaile lanetan nabil". Turismo "tradizionaletik" alde egiteko egitasmoa da bidaia alternatiboena, "Benidormeko Imersoko betiko bidaia horiek alde batera utzi eta beste modu bateko bidaia antolatzeke" sortu zutena. Hala, Grezian edota Andaluzian egon dira, eta bidaia horiek "osagarri kultural gehiago" izaten dituztela eta "hausnartzeko eta pentsatzeko" bidaia direla uste du Alberdik. "Gustura" sentitzen da koordinatzailea jende "mordoak" animatzen delako bidaia horietan parte hartzerak. "Bidaia horietako denbora librean kulturarekin lotutako edukiak kontsumitzen ditugu, era horretan gauza berriak pentsatzeko eta planteatzeko".

Aipatutako abentura horietan ez ezik, bere kasa egiten dituen bidaietan, Azpeitian nahiz Barriobuston (Araba) pasatzen du denbora



Alberdik. Hasiera batean, gaztetan, "arte adierazpenak eta antzinako kulturak ezagutzeko" bidaiaiatzen zuen: Dogonak ikustera joan zen Malira, Boskimanoak ikustera Hegoafrikara, Inken hiriak bisitatzen Machu Pichura edota Teotihuacan ikustera Mexikora. Orain, berriz, "anonimo" sentitzea gustatzen zaiola kontatu du, eta munduan zehar batetik bestera ibiltzeak "anonimotasun hori" ematen diola sentitzen du: "Leku anonimoetan ibiltzeak lasaitasuna eta gustatzen zaidan bohemio puntu hori ematen dizkit, eta bestalde, erantzukizuna kentzen dit". Zenbatzen hasita, 60 lurralde baino gehiagotan izan da azpeitiarra.

Musika eta literatura, "sentipentsatzeko"

Idaztea eta musika sortzea ere "asko" gustatzen zaio Alberdiri. 2011. urtean *Hizkien eskalea* (autoedizioa) olerki liburua argitaratu zuen, eta Mainlander taldeko abeslaria eta hitz askoren egilea ere bada. Hala ere, ez da sentitzen "ez idazlea, ezta musikaria ere". Hark kontatu duenez, "disfrutatzeke" eta "espresio moduan erabiltzeko" sortzen du.



Lagun mina zuen Iñaki Segurola zenak *sentipentsatzen* hitza asmatu zuela ekarri du gogora, bestalde, Alberdik, eta uste du gauzak era horretan egin behar direla: sentipentsatzen. "Pentsamendua alde batera eta sentimenduak beste alde batera eramateko ohitura dugu, eta gauzak ez dira horrela. Egiten denak sentipentsatzeko balio behar du, bizitza goraiatzeko".

Hala, musikan nahiz literaturan "gizakiari buruzko mezuak edo bizitzeko modu bat" erakusten saiatu da, eta bere lanetan baztertuez hitz egitea gustatzen zaiola adierazi du: "Gizartean ez da hitz egiten heriotzari buruz, ezta zahartzaroan daudenei buruz ere, ezta baztertuei edota elbarrituei buruz ere". Hark dioenez, jendea ez da joaten kontzertuetara sentipentsatzera: "Diskoetxeek badakite era horretako gaiek ez dutela saltzen, jendea ez baita joaten kontzertuetara sentipentsatzera. Mundua anestesiatuta dago, eta kulturak horretan funtzio handia du. Niri hori ez zait gustatzen, eta saiatzen naiz egiten ditudan gauzetan hori guztia mugiarazten". ■■■

Pareak

Zein da behin bakarrik
agertzen den elementua?



UMM! Ederra platera!

Hona hemen zure janari gustukoena... Ez duzula ikusten? Jakina, zerorrek marraztu behar duzu etal! Marraztu eta margotu.



Behaketa

Hona hemen Maripurtzil bi egoera gutxi desberdinetan. Goiko honetan istripu bikia izan du. Behekoan lasaitu ederra hartzen ari da. Hala ere, badira sei elementu bi marrazkietan errepikatzen direnak. Zeintzuk ote dira?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Denbora-pasa



IONE GURRUTXAGA

Uztaila igaro berrian, urtero bezala, oraindik begien bistan ditugu Tourreko txirrindulariak eta sanferminetako zezenak. Itxura batean, uztaila da mundu osoan ezagunak diren bi ekitaldi horien lotura nagusia, loturatzat har badaiteke, behintzat. Milioika pertsona mugitzen dituzten festak dira biak, hori ere bai, jendea telebistari itsatsita edukitzea lortzen duten ospakizunak. Baina uda garaira iritsita, bada beste ezaugarri bat biak ala biak batu eta ikusleak liluratzen dituen: abiadura. Letotuta bezala egoten gara entzierroei begira, halako animaliatzarrek Iruñea bisitatzean soilik ulertzen den distantzia hori guztia hain bizkor nola egiten duten ulertu ezinda. Gauza bera gertatzen zaigu pedalkadaz pedalkada Eliseoko Zelaietaraino iristen diren kirolari horiei erreparatzean ere: hainbeste kilometro eginda, hainbeste malda igo eta jaitsita, nondik ateratzen dituzte indarrak azken sprint horietarako?

Uda usainean, eta etxeko sofatik begira jarrita, halako presak alferrikakoak direla iruditzen zaigu sarri, abiadura horrek handik edo hemendik ondorioren bat izan behar duela sumatzeraino. Beste erritmo bat hartzen dugu geuk

ere egunak luzatzearekin batera: eguraldi ona, bestelako planak egiteko aukera, oporrak... Baina zabal dezagun ikuspegia une batez: bada urtean zehar erlojuaren tik-tak amorragarriari jaramonik egin gabe bizi den inor? Noski, ez begiratu erretiratuei, haiek ongi irabazia baitute urratsak kontrolatzen dizkigun eskumuturreko horretatik askatzeko eskubidea.

Urte muturrak hautsi beharrean pasatzen dugu gehienok: egunari 25 ordu emango bagenizkio, guzti-guztiak beteko genituzke bateko eta besteko zereginekin. Produktibitatea da garrantzitsuena, gure munduak horixe sartu baitigu kaskezurrean, eta egiten dugun guztiari probetxua atera beharrak egitekoen pila ongi tontortzera bultzatzen gaitu. Eta, gehienontzat, tontor hori leuntzeko biderik errazena honako hau da: lehen egiteko bakarra zegoen denbora tartean bi sartzea, zer bestela.

**DENBORAK URREA
BALIO DUELA ESAN
DIGUTE ASKOTAN.
ETA SINETSI
EGIN DUGU GUK**

Denborak urrea balio duela esan digute askotan. Eta sinetsi egin dugu guk. Lanerako garaian sinetsi dugu, ordea: geure onena ematen saiatzen gara, guztia eginda uzten, horretarako gure bizitza albo batera utzi behar badugu ere. Eta horra hor txirrindulari lasterketei edo entzierroei ikusten diegun grazia: egin beharrekoa ongi eta azkar egiteko gaitasuna. Baina, gehiegitan, bizitzeko aitzakian, bizitza bera albo batera uzten dugu, bizitza bixitzen duten momentuetatik hasita: denbora-pasa hutsa al da, bada, geure buruari eskaintzeko tartetxo bat hartzea?

Liburu batean orrien artean murgildu, bizikleta hartu eta munduan barrena galdu, bizilagunak aspertzearaino abestu, lagunekin hitz-aspertuan denbora pasa... Norberak aukeratuko du denbora xahutzeko biderik gustukoena, norberak erabakiko du zerk sentiarazten duen ondo. Denbora joango zaigu horretan, baina ez alferrik: presak entzierro eta lasterketarako utzi, eta, osasun mentala hain modan dagoen garaiotan, gehiagotan izan beharko genuke gogoan geure onena emateko eta bizitza labur honi probetxua ateratzeko ezinbestekoa dugula geure buruarekin ongi egotea. ■

Egin dezagun Guka!



AMAIA SAN VICENTE



Uztarrria: "iz. Zurezko atal sendoa eta landua, idi, behi edo kidekoei, lanerako lotzeko, lepo gainean ezartzen zaiena. Elkarrekin aritzea xede". (Orotariko Euskal Hiztegia)

Izen hori aukeratu zuten elkartearen sortzaileek, orain 24 urte, Azpeitiko euskarazko lehen komunikabidea bataiatzeko. Baita asmatu ere.

Lurra goldatu zuten, lehenik. Lurra mugitu eta arnasberritu. Azpeitian prentsa gazteleraz irakurtzen zen ordura arte. Euskaraz alfabetatu gabe zegoen belaunaldi oso bati euskarazko produktu erakargarri bat eskaini zien Uztarriak, hortaz: hilabetekaria.

Ereiteko garaia ere iritsi zitzairen, ondoren: webguneak, *Azpeitiko atayek*, gazteak komunikabidera batzeko balio izan zuen, herrian zer ari zen egosten jakiteko foroetako ekarpenak leitu beharra zegoen, derrigor.

Lana fin egin izanak uzta oparoa ekarri digu berarekin: azken urteetako bilakaera horren erakusle: 2022an, *Uztarrria.eus*-ek ia lau milioi bisita izan zituen. Tokiko

komunikabideetan parekorik ez duen datua, inondik ere.

Urteotan izan ditugu enbatak, euri jasak, kazkabarra ere. Komunikazio teknologien eraldaketa sakona, prekarietatea, kostuen garestitzea, paperaren produkzioaren kontzentrazioa...

Nekazaritzan bezalaxe, komunikabideen alorrean ere, egungo erremintak garai batekoekiko zeharo desberdinak dira: boligrafoak eta paperak, ordenagailuei eta sakelako telefonoei eman diete paso. Hitza pisua galduz joan da, irudiaren mesedetan. Bideo eta argazkiak dira egun gehien kontsumitzen diren edukiak. Berehalakoak, etengabeak.

Horrek guztiak gure egitura berritzera eraman gaitu, ezinbestean. Uztarrria txiki geratu baitzaigu. Horregatik, Urola Kostako beste sei komunikabiderekin bateratu

eta UKT kooperatiba eratu dugu. Eta, aurrerantzean, GUKA egitera gatoz.

Talde sendoarekin. Lan profesionala eginez. Esperientziaz jantzia, eta halaber, eduki freskoak eta berritzaileak eskaintzeko asmoz. Azpeitiko nahiz Urola Kostako aldarrien plaza berria izango da GUKA. Izen berriarekin, izana mantenduz.

Komunitate trinko bat eraikitzen jarraituko dugu; Azpeitia izanen dugu abiapuntu eta helmuga, baina inguruko xendetan gora eginez, Izarraitzeko gailurretatik begirada zabalduko dugu eskualdera.

Elkartek kooperatibari eman dio lekukoa, eta hark gidatuko gaitu bide berrietan barrena. Azpeitiko albisteen oihartzuna ozen entzun dadin, lau haizetara.

Urolaldeko euskaldunok, mintza gaitzen GUKA.

Guka: "1 perts. Plu. Lehengoek gu gehiago zaukaten ezenez ni; guka gehiago mintzo ziren nika baino". (Orotariko Euskal Hiztegia). ■

KOMUNITATE TRINKO BAT ERAIKITZEN JARRAITUKO DUGU; AZPEITIA IZANEN DUGU ABIAPUNTU ETA HELMUGA

"Behin utzitakoan, ez dut abiadura proba gehiago egingo"

JOXEAN ARANETA LAGUN ARTEA ESKUDERIAKOA

Abenduaren 31n utziko dio azken 40 urteetako jardunari, auto lasterketak antolatzeari. Joxe Labaka pilotuarekin murgildu zen automobilismoan, eta zaletasunari elkarrekin utziko diote. Momentu ederrak bai, baina atsekabeak ere izan ditu. Horrelakoetan, "loa galtzen" duela dio.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoa**.

Lau hamarkada daramatza Joxean Aranetak (Elosiaga, Azpeitia, 1963) automobilismoaren munduan. Lasterketak jokatzeko baino, antolatzen egin du lan batik bat; Euskal Herrian barrena autoen proba ugari prestatu izan ditu Lagun Artea eskuderiaren izenean. 60 urte beteta, ibilbidea bukatzeko sasoa iritsi dela uste du, eta lekukoa besteren bati pasatzeko prest dago.

Nondik datorkizu auto lasterketarako zaletasuna?

Txikitan, Elosiagan baserrian bizi ginenean, Rally Vasco Navarro lasterketa igarotzen zen Beizamatik. Gu, gauez, oinez joaten ginen Elosiagatik Beizamako hilerri parera autoak ikustera; behin, pare hartan, zazpi autok bata besteari atzetik irten zuten bidetik hilerriaren azpialdera. Mutil koskorretan han egoten ginen belarria errepidearen kontra jarri eta "hemen dituk, hemen dituk" esanez. Gero, Joxek [Labaka] 18 urte egiterako ekarri zuen autoa, lasterketetan hasi zen, eta ni harekin kopilotu. Horrela hasi eta aurten arte. Labakak ere aurten utziko dio lasterketei; batera hasi ginen eta batera lagako diogu, horixe esan genion elkarri.

Noiz hasi zinen auto lasterketak antolatzen?

Auto lasterketak antolatzen hasi aurretik, 1982an, kopilotu ibiltzen nintzen Labakarekin eta

Aginagalderekin. Formalki 1986an hasi ginen auto lasterketak antolatzen, eta 1990ean sortu genuen Lagun Artea eskuderia. Aurretik beste eskuderia batzuekin antolatzen genituen probak. Joxe Labakari laguntzeko erabaki genuen eskuderia sortzea, eta ordutik, aurrera egin dugu.

Urrakiko Igoerak, ordea, urte gehiago ditu, ezta?

42 urte ditu Urrakiko Igoerak. Guk eskuderia sortu aurretik, Marruak eskuderiak Urrakiko Igoeraren sei edizio antolatu zituen; uste dut aurrenekoa 1977an egin zutela. Azpeitiko auto lasterketetan zaharrena da Urrakikoa. Azpeitiko Rallya ere egin zen urte batzuetan, baina gero eta arazo gehiago zeuden antolatzeko, eta haren ordez, klasikoaren rallyak egiten hasi ginen. Klasikoaren rallyak aurten hogeigarren edizioa izan du. Erretiroa hartu aurretik, Azpeitiko Rallya berriro antolatzeko ilusioa nuen –Beizama gora, Urraki behera eta Etumetara arteko zatiak eginez–, baina ez da posible egitea. Borrokan ibiltzeko aspertuta gaude, eta horretan lagako dugu gogo hori.

Ba al duzu lekukoa zeini eman?

Ez, ez dut. Lasterketak antolatzeko lan asko egin behar da. Poztasun handiak izaten dira, baina baita atsekabe handiak ere; denetarik izaten da. Bateren batek horri aurre egiteko konpromisoa hartzen badu, hor dauka eskura. Lekukoa hartzen duenari nik lagunduko diot, baina hortik aurrera...



Joxean Araneta, Landetan. NEREA URANGA

Auto lasterketa batek zer lan du aurretik?

Denboraldi berria aurreko urtea bukatzerako hasten da. Izan ere, azaroan, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak hurrengo urteko lasterketen data guztiak eskatzen dizkigu. Behin horiek zehaztutakoan, proba antolatzekeo diru biltzearen garaia hasten da: babesleak, iragarleak... Lasterketaren egunean, berriz, ehun bat boluntario behar izaten dira lanerako, ibilbideko segurtasuna zaintzeko eta beste hainbat lanetarako. Gastua ere dezentekoa izaten da, aseguruetan bakarrik 14.000-15.000 euro gastatu behar izaten dira eta. Sariak, baina, gaur egun ez dira hainbestekoak izaten; bi mila euro banatzen dira sarietan. Lehen baino sari txikiagoak ematen dira; orain dela lau urtera arte 6.000 euro banatu izan genituen sarietan. Lasterketa bakoitza iragartzeko mila kartel ere ateratzen ditugu, eta horiek banatu egin behar izaten dira. Proba

aurreko azken hilabetea lan bete-betekoa izaten da.

Zer auto lasterketa antolatu izan dituzu? Azpeititik kanpo ere egin izan dituzue, ezta?

Urte batzuetan Euskal Herriko ia lasterketa guztiak guk antolatu genituen: Gabirikoa 25 urtean egin dugu; Jaizkibelgo auto lasterketa hamahiru urtean antolatu genuen, baina orain Jaizkibel eskuderiak du horren ardura; Lesakako proba zortzi urtez-edo egin genuen; Gorlakoa lau urtez; Udanako proba ere hiru urtez prestatu genuen; Urbasa ere egin genuen; Azpeitiko Ikasberri Rallysprinta ere antolatu genuen. Horiez gainera, urte batean Nafarroako Txapelketa oso-oso ere guk antolatu genuen. Urte hartan, Maykel Del Cid eta biok asteburu bakar batean ere ez ginen sartu etxean; astea lanean pasatu eta asteburuetan Nafarroako Txapelketako probak antolatzen joaten ginen. Nafarroako Automobilismo Federazioak baino

sari hobeak eman genituen, eta denak oso ondo irten zuen.

Eta gaur egun zer auto lasterketa antolatzen ditu Lagun Artea eskuderiak?

Gabirikoa, Azpeitiko Rallysprinta, Aiako Igoera, Urrakiko Igoera, uztailleko eta azaroko Azpeitiko klasikoen rallyak eta Urte Zahar egunean Aiako Slaloma dira gaur egun antolatzen ditugun lasterketak. Gero, klasikoen rallyak antolatzen segitzeko asmoa badut, baina abiadurako auto lasterketarik ez dut egingo.

Zergatik?

Ardura asko dira, beti nerbioak eta tentsioa goi-goian izaten dira. Diru asko jartzen da jokoan, eta ondo ateraz gero, ondo, baina gaizki irteten duenetan, ondorioak norberarentzat izaten dira. Anaiak-eta ere nahiko erreta ditut, urte askoan ondoan izan ditudalako zigortuta. Utzi eta... kitto! Alabak esan dit auto lasterketetan dabiltzan emakumeen talde bat osatu dutela, eta igoal, beraiek zerbait antolatuko dutela. Ezer antolatzen hasi aurretik ondo-ondo pentsatzeko aholkua eman diot alabari, kontua ez baita lasterketa prestatzea bakarrik; horrek ekartzen dituen ondorio guztiak ere kontuan hartu behar dira. Aurren, Azpeitian ezbehar bat izan dugu, eta hori nork bere egin behar du, azkenean, ni naizelako lasterketaren arduraduna. Gainera, ez da izan aurtengoa ezbehar bakarra: 2020an Urrakin beste ezbehar bat gertatu zen, 2008an beste bat, 2001ean beste bat eta 1998an Beizaman bestea. Bost dira, asko dira.

Asko sufritzen duzu horrelako ezbehar bat gertatzen denean?

Bai, loa galtzen dut. Auto lasterketaren bueltako egunetan ez da lorik egiten; ez bezperan, ez egunean, ez ezbehar bat gertatzen den ondorengo egunetan ere.

Momentu onak ere eskainiko ditu, ezta?

Asko, asko izaten dira une ederrak ere. Pozgarria izaten da auto lasterketa batean dena ondo eta zoragarri joaten denean.

Parte hartze handiko lasterketa onak ere izan dira hemen inguruan, ezta?

Bai, bai. Jaizkibelen lehendabiziko lasterketa antolatu genuenean 114 gidarik parte hartu zuten; Europako Txapelketa jokatzeko ari ziren gidariek irten zuten, italiarrek eta. Urbasakoan ere 108 gidarik parte hartu zuten urte batean, eta Azpeitian bertan ere, 80tik gora autok irten izan dute. Horrek bere zera bat ere ematen dizu. Jende askok deitu dit auto lasterketak antolatzeari ez

uzteko eskatuz, baina beti ez dago segitzerik. 60 urtera iritsi gara, eta uzteko garaia iritsi da.

Auto lasterketak aurkezten dituzuen aldiro, arauak errespetatzeko eskatzen diezue zaleei. Zer moduz moldatu zarete probak ikustera joaten diren zaleekin?

Azken hiru urte hauetan nahiko ondo gabiltza. Izan dira, ordea, bolada txar-txarrak, gorabehera askokoak. Garai batean, lasterketa aurretik joaten zen jendea tokia hartzera, eta batzuk errespetu falta ikaragarriarekin jokatzeko zuten: baserri aurreetan sua eginez, inguruak errespetatu gabe, baserri bideak itxiz... Gogoan dut Gabirian antolatu genuen aurreneko edizioan gertatutakoa: igandean zen auto lasterketa, eta ostegunerako jendea zegoen bilduta ibilbidearen bazterrean, sua egiten eta. Jende harekin gauzak konpontzeko nahiko lan ibili nuen; ertzainei deitu, neu haiekin hitz egitera joan... Handik aurrera, bezperatik Gabirian gelditzen nintzen, bizilagunen kezarik baldin bazen konpontzen saiatzeko. Garai hartan, Errezil aldean ere tratu txar-txarrak pasatutakoak gara, goizeko hiruretan joan eta ibilbide ertzetan zeudenekin eztabaidan. Horrelakoetan, zenbat aldiz esan ote diot neure buruari: "Hau dena bukatu da, dena utziko dut". Hurrengo egunean lasterketan denak ondo irteten du, eta bezperakoa ahaztu egiten da, baina... Azken urteetan, jendearen gauetako ibilera horiek asko galdu dira, eta alde horretatik, hobeto gabiltza.

Asmatuko al duzu auto lasterketak ikustera soilik joaten?

Gaur egun, lasterketak irteeran bakarrik ikusten ditut. Orain, dena utzitakoan, badaukat zer ikusia; hogeitaka urtetako bideoak hor egongo dira, eta horiek ikusteko denbora izango dut.

Zaletasunean oinarritutakoak badituzu etxean: Arantzazu Araneta alaba auto lasterketetan dabil.

Bai. Hamabost eguneko umea Gabirian besoetan utzi eta lasterketan irten behar zuela esan zidanean, oso gaizki pasatu nuen; lasterketa bertan behera utziko nuela esan nion. Hark, ordea, kasurik ez zidan egin, eta tratu txar-txarra pasatu nuen. Lasterketan dena ondo joaten denean ondo, baina gaizki joatea ere egokitu daiteke... Kanpokoari bezalaxe, etxeokoari gerta dakioke zerbait, eta etxeokoa izanda, ez dago barkaziorik. Semeek ez dute abiadura probetan irteten, baina ez gogorik ez dutelako.

Automobilismoa kirol garestia da, ezta?

Afizio handia eduki behar da, eta mekanikaz ere jakin beharra dago. Lan hori norberak egiten badu, ez da horren garestia, baina jakin egin



Joxean Araneta eta Joxe Labaka, proba baten irteeran.

**"JENDE ASKOK DEITU DIT AUTO
LASTERKETAK ANTOLATZEARI
EZ UZTEKO ESKATZEKO"**

**"JARDUERA HONEK ARDURA ASKO
ESKATZEN DU, BETI NERBIOAK ETA
TENTSIOA GOI-GOIAN IZATEN DIRA"**

**"JOXE LABAKA ETA BIOK GURPIL
JOKO BAKARRAREKIN EGINDA
GAUDE ESPAINIAKO TXAPELKETA"**

behar da. Gaur egun, denek ez dakit nolako kaxa sartzen dioten autoari, elektronikarekin eta... Gure garaian ez zen horrelako ezer: egun batetik bestera askatzen genuen Simca Rallya, motorra kanpora atera eta hurrengo egunean berriro muntatuta errodajea egitera. Oraingo autoekin ez

dago horrelakorik egiterik, elektronika sartuta dutelako. Joxe [Labaka] eta biok gurpil joko bakarrarekin eginda gaude Espainiako Txapelketa osoa; gaur egun, berriz, gurpil joko bat gastatzen dute lasterketa bakoitzean. Alde ederra dago! Gora egin du kontuak, eta sariak orduan baino txikiagoak dira orain.

Afizioa automobilismoa duzu, eta lanbidea ere gurpil gainekoa.

Kamioiarekin egiten dut lan, bai. Goizeko hiruretan hasi eta bukatu arte; eguerdiko hamabietan, ordubatean edota ordubietan lana amaitu arte. Arratsaldea, berriz, afizioari eskaintzen diot, auto lasterketarako babesleak topatu...

Bizi osoan jardun al duzu kamioiarekin lanean?

1986an hasi nintzen kamioiarekin lanean. Aurretik beste bederatzi urte tabernan egin nituen; hiru urte pasatu nituen Zumaian eta sei urte Bergaran. Gero, hoberako asmoan, kamioian hasi nintzen, baina... Zumaiara joaten nintzenean, goizeko zortzietan hasten ginen tabernan lanean; gero, Bergarara joan nintzen lanera, eta han goizeko seietan hasten nintzen; ondoren, hobeto izango zelakoan, kamioiarekin hasi eta goizeko hiruretan... Ez noa gehiago lanez aldatzera!

Zer du bada errepideak?

Ez dakit, badu zerbaite, baina ez dakit zer den. ■■■

Motzean

Auto lasterketa bat? Azpeitiko Rallya, Beizamako ibilbide zatia, Urrakin behearako zatiarekin eta Etumetara. Erretiroa hartzerako berriro proba hori antolatzea zen nire ilusioa, baina ez da posible, eta hortxe geldituko da. Urrakiko Igoera ere asko gustatzen zait.

Auto bat? Porschea 911 grupo 4 edo 5, bietakoren bat.

Gidari bat? Joxe Labaka.

Kanpoko gidari bat? Carlos Sainz aita.

Inoiz ikusi ez duzun zein lasterketa

ikusiko zenuke gustura? Montecarloko Rallya; elurretan da eta zerbaite desberdina ikusteko.



MIEL A. ELUSTONDO

Zoratzekoa

Eta agintzen dut, prometitzen dut ez dudala berriz horrela eskribituko, baina halaxe idatzi zuen liburu bat oso-oso Nelly Arcanek orain dela hogeitaka urte, ia batere punturik gabe, *Put*a zuen izena liburuak eta joan den urtean ekarri nuen euskarara eta nola nire herrian inork ez zidan kasurik egiten, oraingo herrian presentatu nuen, baina nola bibliotekariak esan zidan nahi beste denbora nuela hitz egiteko, andreak orduan esan zidan hura ez zela presentazioa, zela hitzaldia, eta hitzaldia prestatu behar izan nuen, eta halaxe jardun nuen hizketan eta *Put*a liburutik letzen ez dakit zenbat denbora, eta txarki ere ez, eta akordatzan naiz guk *txarki* esaten genuela txikitan herrian, eta baten batek, asko ikasitako baten bat izango zen hura, esan zuen ezetz, ez dela *txarki* esaten, esaten dela *gaizki*, eta holako txorakeriatan eman dugu denbora, euskara aldrebesten beti, eta nik *Put*a letzeko gomendatuko nizueke denoi, oso liburu ona da, interesgarria tope, saninaziotan bertan tabernan edo txoznetan letzeko modukoa, pasarte bat, behintzat, eta gero segi letzen hondartzan, mendian, edo etxean ezkutuan, edo Pakoren azkena bezala, Irunberriko

arroilan, eta Gasteizen egin zuen presentazioa liburuarena Pakok, oso aurkezpen ona, inoizko onena, eta izoztua ere etortzekoa zen, baina Covitekoak bazterrak nahasten hasi ziren bezperan, eta izoztuak nahiago izan zuen ez etorri, liburuari kalterik ez egitearren, eta Interneten begira jakin dut izoztua nora, Covite prentsa, bere prentsa, eta sare ez-sozialak astintzen hasten dela, izoztuaren presentziaren kontra, eta inork ez gaitu bakean utziko, edo bakea emango digute gure izateari uko egiten diogunean, eta beraiek bezain inperialista espaiolak garela esaten dugunean, bitartean ezer ez, ez digute herri izaten utziko, eta bitartean gure herri euskaldunetara ere erdara sartuta dago, eta beldurra ematen, Orion nintzen atzo, eta erdara besterik ez nuen aditzen, eta azkenerako neure buruari builaka hasi nintzen, orroka, zoratzekoa da eta. ■■■

**BITARTEAN
GURE HERRI
EUSKALDUNETARA
ERE ERDARA
SARTUTA DAGO**



SARA AMENABAR

Konparaketak

Hilabete honetan oporrak dira mintzagai. Deskantsatzeko eta disfrutatzeko aukera daukagu gehienok. Bidaiaitzeko gogoagertzen da, esperientzia desberdinak bizitzeko desira. Eguraldi ederra eta gozatzeko denbora. Ondo pasatzea merezi dugu.

Lanean egotea tokatuz gero, saia zaitez zuretzako denbora hartzen. Konparaketan ez erortzen. Ondokoaren egoera "hobea" dela uste baduzu, gogoratu kanpotik ikusten dena ez dela beti erreala izaten. Batzuk oporrak bakarrik pasatuko dituzte, beste batzuk jendartean egongo dira. Batzuk gertu gelditzeko aukera bakarrarekin, eta besteak urrutira joanez. Gogoratu, konparaketan erortzeak ez dizu onik egingo.

Aurretik daukazun abuztua espero zenuena bezalakoa ez bada, ez arduratu. Urteak hilabete gehiago ditu, momentu eta pertsona berriak azaltzear daude. Bizitza une txikiez osatuta dago, egunero mirets ditzakegun keinuak identifikatu ditzakegu. Falta zaigunarekin horrenbeste pentsatu beharrean, orain esku artean daukaguna balioztatzea ezinbestekoa da zoriontasuna ulertzeko. Horretarako gai izanda, konparaketan ez gara hain erraz eroriko. ■■■



NON DAGO UZTARRIA?



Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarrria pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarrria@gmail.com helbide elektronikora irailaren 15a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta. Uztailleko Uztarrria aldizkarian Uztarrria pertsonaia non ezkutututa zegoen asmatu behar zen: 44. orrialdean zegoen ezkutututa, eta Aitor Azpillaga bazkidea (argazkian Amets Azpillaga semearekin) izan da irabazlea.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

DOAN EZ DA DEBALDE



**ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.**

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41